

# Hizkuntzen erabileraren kale neurketa

Elgoibar | 2025



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**  
Euskara biziberritzeko  
ikergunea

Ikerketa-taldea: Olatz Altuna Zumeta eta Andere Goikoetxea Lopetegi

Soziolinguistika Klusterra

Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.

20140 Andoain

2025

[www.soziolinguistika.eus/kaleneurketak](http://www.soziolinguistika.eus/kaleneurketak)

Lizentzia: CC-BY-SA Nazioartekoa 4.0

Babeslea: Elgoibarko Udala

## Aurkibidea

1	Sarrera .....	4
2	Helburuak .....	5
3	Kokapen soziolinguistikoa .....	6
4	Metodologia.....	8
4.1	Ikerketa-teknika .....	8
4.2	Neurketa Diseinua.....	10
4.2.1	Ibilbideak .....	11
4.2.2	Neurraldiak.....	12
4.3	Emaitzen adierazgarritasuna .....	14
4.4	Laginari buruz .....	14
4.4.1	Laginaren eta biztanleriaren osaketa, sexuaren arabera .....	15
4.4.2	Laginaren eta biztanleriaren osaketa, adinaren arabera .....	16
4.4.3	Laginaren osaketa, espazioen edota giroen arabera .....	17
4.4.4	Laginaren bilakaera .....	18
5	Hizkuntzen kale erabilera .....	19
5.1	Datu orokorra.....	19
5.2	Bilakaera .....	20
5.3	Udalerriko inguru soziolinguistikoa .....	21
5.3.1	Elgoibarko aldagai soziolinguistikoak.....	23
5.4	Udalerriko aldagai soziolinguistikoak .....	27
5.5	Beste eremu geografikoetako erabilera .....	28
6	Hizkuntzen kale erabilera, udalerriko ibilbideetan.....	31
6.1	Datu orokorrak, ibilbideetan .....	31
6.2	Bilakaera ibilbideetan .....	32
7	Hizkuntzen kale erabilera, hiltunen ezaugarrien arabera.....	33
7.1	Hizkuntzen kale-erabilera, sexuaren arabera .....	33
7.2	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, sexuaren arabera .....	34
7.3	Hizkuntzen kale-erabilera, adinaren arabera.....	35
7.4	Euskara gaitasuna adinaren arabera.....	36
7.5	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adinaren arabera .....	37
8	Hizkuntzen kale erabilera, solas-taldearen osaeraren arabera.....	39
8.1	Hizkuntzen kale-erabilera, adin-talde berekoak elkartzean .....	39
8.2	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adin-talde berekoak elkartzean ...	41
8.3	Hizkuntzen kale-erabilera, haurren presentziaren arabera .....	42
8.4	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, haurren presentziaren arabera ...	44

8.5	Hizkuntzen kale-erabilera, haurra ala nagusia hitz egiten ari den .....	45
9	Ondorioak .....	46
10	DATU NAGUSIEN LABURPENA .....	47
11	Bibliografia .....	48

# 1 SARRERA

---

*“Hizkuntzak, komunikazio bide izateaz gain, pentsamendua egituratzea ahalbidetzen du, eta errealitatea interpretatu eta barneratzeko ezinbesteko baliabidea ere bada. Horrez gain, pertsonen gizarteratzea errazten du, eta, ondorioz, nortasunaren garapenean ere leku garrantzitsua hartzen du.” (Zarraga Azumendi 2010, 23)*

---

Gizakiaren, gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkar eraginaz mintzo da aurreko aipua, hizkuntzaren garapen soziala gizarte auzia baita. Horregatik, pertsonen eta taldeen arteko harremanez aritzean, edota elkarbizitzaz erabakiak hartzerakoan, hizkuntzek hartzen duten tokia zehaztea komenigarria da. Hala, hizkuntza-politika eta -plangintza egokiak abian jartzeko ezinbestekoa da errealitate soziolinguistikoa metodo zientifikoen bidez etengabe ikertzea, horrela soilik deskribatzen baita hizkuntzei dagokienez gizartean gertatzen dena.

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketek errealitate soziolinguistikoa gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen dute, eta behar-beharrezkoak dira hizkuntzen bizindarra ebaluatzeko, erabilera baita adierazle soziolinguistikoa esanguratsuenetako bat. Neurketaren bidez, erabilerari buruzko datu enpirikoak eskuratzen dira, ikerketa-galdera nagusi honi erantzunez: “zenbat euskara erabiltzen da kalean?”

Kontuan izan behar da ikerketa honek udalerriko kaleetan zuzenean behatutako hizkuntzen erabileraren berri ematen duela, alegia, datuok ez direla aitortuak (hiztunaren autopertzepzioan oinarritutakoak), baizik eta neurtuak. Horrez gain, ez da ahaztu behar entzuten den hizkuntzen erabilera ez dela, halabeharrez, udalerriko biztanleena, udalerriko kaleetakoa baizik.

Nolanahi ere, jakina da hizkuntzen erabilera ez dela aldagai egonkorra, ezta indibiduala ere; alta, une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak baldintzatzen dute. Horregatik, ikerketa honetako erabilera-datuak interpretatzeko adierazle soziolinguistikoak, demografikoak eta soziologikoak ere aintzat hartu behar dira.

Gainera, aipatu behar da azken hamarkadetan gizarte-bizitza era esanguratsuan aldatu dela globalizazioa, digitalizazioa, eta migrazioak bezalako fenomenoak tarteko. Hala, gizarte-aldaketa handien testuinguruan, inoiz baino garrantzitsuagoa da hizkuntzen erabileraren bilakaera arretaz aztertzea.

Txosten honetan, *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Elgoibar 2025 ikerketaren* emaitzak aurkezten dira. Euskal Herrian egiten den neurketaren ezagutza metodologikoan eta soziolinguistikoa oinarritzen da berau, eta, eredu horri jarraiki burutu da, 2025eko irailean eta urrian, Elgoibaren egin den hirugarren edizio hau.

Txostenak honako hamar atal hauek ditu. Sarreraren ostean, ikerketaren helburuak zehaztuko dira. Hirugarren atalean, testuinguruaren berri emango da kokapen gisa, hizkuntzen kale-erabileraren datuak interpretatzeko eta ulertzeko lagungarri izan daitezkeen gako nagusiak emanez. Jarraian, ikerketaren azalpen metodologikoak eskainiko dira, ikerketaren fitxa teknikoa eta laginaren inguruko azalpenak, besteak beste; ondoren hizkuntzen erabileraren datuak eskainiko dira, udalerriko zenbait aldagai soziolinguistikoen datuekin batera; gero udalerriko ibilbide desberdinetako,

hiztunen ezaugarrien arabeko eta solas-taldearen arabeko datuak emango dira. Ondorioen atalean, bidenabar, datu horien gaineko irakurketa eskaini da, eta azkenik, datuon laburpena aurkezten da. Amaitzeko, txostenaren eranskinera datu-bilketarako diseinatutako ibilbideen mapak ere ekarri dira.

## 2 HELBURUAK

*Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Elgoibar 2025 ikerketaren helburu nagusiak honako hauek dira:*

- **Elgoibarko kaleetako hizkuntza-erabilerari buruz, datu enpirikoak eskuratzea.**
- **Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera ezagutaraztea**, euskararen biziberritze-prozesuari begira hausnarketarako, hizkuntza-politikak erabakitze eta hizkuntza-plangintza diseinatzeko balio dezan.
- **Euskararen kale-erabilerari buruzko datuak aztertzea eta interpretatzea.**

Ikerketa-lan honek unean uneko baldintza sozialak eta soziolinguistikoak biltzen ditu. Alegia, erabilera aztertze eta kaleko hiztunei erreparatzen zaie, beren adina nahiz generoa kontuan izanda. Halaber, osaera desberdinetako elkarrizketa-taldeek hizkuntza ere aztertzen da: esaterako, elkarrizketetan hurrek parte hartzen badute, nola aldatzen da hizkuntza-erabilera? Horiei guztiei buruzko gogoetak egiteko aukera ematen dute datuek.

Neurketa hirugarren aldiz egin da Elgoibarren. Erabilera-datuak hiru edizioetan jaso izanak argazki dinamikoa eskaintzen du. Horrela, erabileraren bilakaera katebegiz katebegi jaso da, eta ondo oinarritutako interpretazioak egin daitezke. Hau da, gizartearen eraldaketaren isla ere badira txosten honetan aurkezten diren datuak.

## 3 KOKAPEN SOZIOLINGUISTIKOA

Hizkuntza-erabilera ez da egonkorra, ezta indibiduala ere. Izan ere, une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak baldintzatzen dute hiztunek egiten duten hizkuntzen hautua. Besteak beste, ikerketaren emaitzak eskaintzen dituen erabilera-datuok interpretatzeko, ukipenean dauden hizkuntzen erabileran gailentzen diren arau sozialak oso aintzat hartu behar dira; halaber, ingurunearen adierazle soziologikoak, demografikoak eta soziolinguistikoak ere kontuan hartu behar dira, azken hamarkadetan gizarte bizitza hain modu nabarmenean aldatu eta baldintzatu dutenak, hain zuzen.

### Adierazle soziologikoak

Globalizazioaren eraginez guztiz eraldatzen ari den munduan, hizkuntzen arteko harremanak, hizkuntzekiko jarrerak eta politikak, eta hizkuntza-komunitateen bizirau-penerako baldintzak ez dira iragan mendean ziren parekoak. Ingurune digitalaren hedapenak, hizkuntza-teknologiaren garapenak, edota sare-sozialen fenomenoek aurrez aurrekoak ez diren harremanak indartu dituzte, eta bestelako harreman-motak (edo bideak) hauspotu dira. Errealitate berri horrek bete-betean eragiten du aztergai den hizkuntzen kaleko erabileran, esate baterako, belaunaldi gazteek gero eta denbora gehiago igarotzen baitute Interneten edota plataforma digitaletan, eta eremu digital horretan erdaren erabilera nagusi baita.

Kezka hori ez da Euskal Herrikoa bakarrik. Hainbat estatu-hizkuntza ere arduratuta agertu dira, globalizazioaren eta, batez ere, ingelesaren nagusitasunaren ondorioz, beraien hizkuntzen presentzia eta erabilera apaltzen ari baita, etengabe (Crystal 2003), (Lo Bianco 2014), (Calvet 2017). Beraz, are eta arreta handiagoarekin begiratu behar zaio fenomeno horri euskara bezalako hizkuntza minorizatuaren ikuspegitik.

Mundu globalizatu honek paradigma sozial berria ekarri du; oro har, kaleko giroa eta herritarren arteko zuzeneko harremanak nabarmen aldatu baitira. Gurea bezalako gizarte elebidun desorekatuetan, are eta eragin handiagoa nabarmendu da.

### Adierazle demografikoak

Joera orokorra da, Euskal Herrian, azken urteetan biztanleria hazi izana, baina hazkunde hori ez da hazkunde begetatiboagatik gertatu, izan ere, euskal herritarren artean bizi-itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotza-kopurua heriotzarena baino baxuagoa. Aldiz, biztanleriaren hazkundera azken urteetako migrazio-saldo positiboa zor zaio, hala izan ezean, biztanleriak behera egingo bai zukeen (Gaindegia 2021).

Kontuan izan behar da, era berean, fenomeno horrek berak biztanleriaren zahartze-tasa igotzea eragin duela, hau da, bizi-itxaropena handitzearekin batera, adineko pertsonen proportzioa ere handiagoa izatea. Eta, zalantzarik gabe, horrek kaleetako giro soziala ere aldatu du.

### Adierazle soziolinguistikoak

Euskararen erabilera baldintzatzen dituen aldagai garrantzizkoak euskal hiztun-kopurua (edo dentsitatea) eta hiztunen hizkuntza-ohiturak dira. Alegia, hiztunak behar

dira elkarrizketak euskaraz izan daitezen, eta euskaraz hitz egiteko ohitura ere ezarria behar du izan. Nolanahi ere, euskaldunen proportzioa (edo ezagutza-indizea) eta euskararen kaleko erabilera-indizea ez dira erabat eta modu zuzenean alderagarriak. Sarritan egiten da erkaketa hori, baina bi datu horien ezberdintasunak arretaz begiratu behar dira: gogoratu behar da euskararen ezagutza, jasotzen den moduan, aitortua eta indibiduala dela, eta, aldiz, euskararen kale-erabilera behatua eta kolektiboa. Aldeak alde, halere, korrelazio handia dago bien artean, euskal hitzun-kopurua handien dagoen eremuetan jasotzen baita euskararen kale-erabilerarik altuena, eta alderantziz.

Bidenabar, euskararen gaitasunaren eta erabileraren arteko aldeak sakonago aztertze aldera, komeni da alde kuantitatiboari ez ezik, alderdi kualitatiboari ere erreparatzea. Alde betetik gogoratu behar da gaur egungo euskal hitzunaren profila ez dela orain dela 30-40 urtekoaren berdina. Orain, askoz ugariagoak dira euskara jakin bai, baina erdaraz (frantsesez edo gaztelaniaz) hobeto moldatzen diren hitzunak; ez da ahaztu behar, euskalduntze-prozesuaren eraginez, gaur egun, haur eta gazte euskaldunen artean gehiengoak bigarren hizkuntza modura duela euskara—eskolatik jasoa—, orain artean ia sekula ez bezala. Pentsa daiteke hitzun horietako askok, praktikan, erdararako joera izan dezaketela, eta, ezinbestean, horrek zuzenean eragiten duela hizkuntza-hautuan eta euskararen erabileraren indizean.

---

*Euskaldunen erraztasuna aldatu egin da 1991tik hona. Duela hogeita hamar urte, euskal elebidunen eta erdal elebidunen ehunekoa nahiko antzekoa zen (% 34,6 versus % 37,8). Gaur egun, ordea, erdal elebidunen ehunekoa 18,8 puntu handiagoa da euskal elebidunena baino (% 26,3 versus % 45,1).*

*(Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde publikoa 2024).*

---

Bestalde, gogoan izan behar da euskaldun (ia) guztiak dutela gaztelaniaz edo frantsesez hitz egiteko gaitasuna. Hau da, euskaldunen elkarrizketa guztiak (% 100) izan zitezkeen erdaraz. Euskaraz aritzeko goi-muga, ordea, % 100 horren oso azpitik dago, aski baita solaskide batek euskaraz ez jakitea erdaretara jotzeko. Aipatu bezala, gainera, badira erreparatu beharreko beste baldintza batzuk testuinguru sozial eleaniztunetan, ezagutzak ez baitu hizkuntzaren erabilera baldintzatzen, hizkuntza erabiltzeko aukera baino ez baitu sortzen edo eskaintzen.

Azkenik, aipatu behar da euskal hitzunik beste erabateko aldagaien eragina ere nozitzen dutela, esate baterako, harremanak eraikitze orduan ezarritako hizkuntza-ohiturak, batzuen edo besteen aurrean azaleratzen diren zenbait aurreiritzi edo ingurunean antzematen diren hizkuntza-arau sozialak. Horiek guztiak ere, hizkuntzarekiko duten jarrerekin batera, izan dezakete eragina hitzunik egiten duten hizkuntzen hautuan.

Labur esateko, ikerketaren datuen irakurketarako komeni da arreta jartzea hizkuntzaren erabileran eragiten duten aldagaiak asko eta askotarikoak direla, alegia, izaera poliedrikoa duela; neurketa batetik bestera kale-erabileraren joerak alda daitezke, baina fenomenoaren konplexutasunak zailtzen du aldaketa hori zer faktoreren (edo faktore-konbinazioen) eraginpean gertatu den azaltzea. Ez da komeni, beraz, irakurketa datu isolatuetara edo "igo/jaitsi" kontzeptuetara mugatzea, baizik eta

ikuspegi diakronikoz egitea. Emaitzen gorabehera puntualei baino, joerei erreparatu behar zaie, eta, batez ere, joera horien jarraikortasunari. Horregatik da garrantzitsua behaketak lauzpabost urteko maiztasunarekin jasotzea, horrela lortzen baita egoera estatikoetatik harago, bilakaeraren informazioa.

## 4 METODOLOGIA

*Hizkuntzen erabileraren kale-neurketan*, hizkuntzen ahozko erabilerari buruzko datu empirikoak jasotzen dira. Kaleetan entzundako elkarrizketetatik atera da informazioa. Beraz, espazio irekietan solasean ari ziren hiztunen jarduna behatuz jaso dira Elgoibarko kale-erabilerari buruzko 2025. urteko datuak.

Behaketa bidez hizkuntzen erabilera neurtzeko metodoa Euskal Herrian sortu zen XX. mendeko 80ko hamarkadan<sup>1</sup>, eta, hogeita hamar urtetako esperientzia metatuarekin, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dago.

Metodo horrekin, Euskal Kultur Batzordeak (EKB) Euskal Herriko neurketaren lehen edizioa burutu zuen 1989an. Geroztik, beste zazpi aldiz errepikatu du neurketa Soziolinguistika Klusterrak (aurrez SEI Elkarteak)<sup>2</sup>. Ondorioz, ikerketa-lan horri esker, azken 30 urteetan hizkuntzek Euskal Herriko kaleetan izan duten (ahozko) presentzia aztertu da (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

Sarreran esan bezala, Elgoibar(e)n eginiko neurketa hau Euskal Herriko ikerketan oinarritutakoa da. Hala, aipatutako metodoaren ezaugarri nagusiak gidan jasota badaude ere (Altuna eta Basurto 2013), ikerketa honetan izan duen aplikazio zehatza azalduko da, jarraian.

### 4.1 IKERKETA-TEKNIKA

Esan bezala, behaketa zuzenaren bidez eskuratu dira hizkuntzen erabilerari buruzko datuak. Teknika horrek, ezinbestean, diskrezioa eskatu du. Hau da, hiztunak behatutak izan direla ohartu gabe jaso da hizkuntza-praktikei buruzko informazioa. Ez dute, behintzat, elkarrizketa-hizkuntza behatzen ari garenik jakin.

---

*Behaketa Zuzena izenarekin ezagutzen dugun teknikaren helburua da gizakien portaerak inolako manipulaziorik gabe era sistematiko eta kontrolatuan begiratzea, eta hortik ikerketarako garrantzitsua den informazioa eskuratzea. Bitartekorik gabe, hau da, zuzenean egiten den behaketa delako hartzen du teknika honek behaketa zuzena izena.*

(Juaristi, 2003)

---

<sup>1</sup> Erabilera neurtzeko metodoa Siadeco Ikerketa Taldeak sortu zuen, Iñaki Larrañagaren gidaritzapean (2021ean hil zen soziolinguista aitzindaria). Garai hartan, hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak jaso ziren estreinako EAEn, 1981eko zentsuaren bidez; 1983. urtean, Kale Erabileraren Neurketa metodologia sortu zuten, eta Gipuzkoako udalerrri guztietan egin zituzten neurketak (Larrañaga 1986).

<sup>2</sup> 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016 eta 2021 urteetan egin dira neurketa horiek. Azken urteetako edizioak zentsu- eta errolda-urtearekin bat datoz.

## Datuak biltzeko irizpideak

Elkarrizketa izan da behaketa-unitatea: kalean dagoen pertsona bat edo gehiagoren arteko solasaldia<sup>3</sup>. Neurtzaileei zuzendutako edo neurtzaileen arteko elkarrizketak ez dira jaso. Halaber, neurraldi berean, solaskide-talde bera hizkuntza berean behin baino gehiagotan entzun den kasuetan, behin bakarrik jaso da praktika hori<sup>4</sup>.

Hain zuzen, kalean entzundako elkarrizketa horiek zein hizkuntzatan gertatu diren jaso dute neurtzaileek (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo beste hizkuntza batean)<sup>5</sup>. Gainera, elkarrizketa horietan parte hartu duten solaskideen ezaugarriak bildu dira, betiere behaketa zuzen bidez pertsonen egotzi diezazkiekegunak, inori ezertxo ere galdetu gabe: sexu-generoa (emakumezkoa edo gizonezkoa den<sup>6</sup>, alegia) eta adina (haurrak, gazteak, heldu gazteak, heldu nagusiak eta adinekoak<sup>7</sup>). Azkenik, behatutako elkarrizketetan, hiztun aktiboa haurra den edo ez ere jaso da.

## Datuak biltzeko prozedura

Datuak *Neurgailuaren* bidez jaso dira, mugikorreko APP bidez, alegia<sup>8</sup>. Modu horretan, datuak modu diskretuagoan jasotzea ahalbidetu da, eta, unean une, behatu den elkarrizketa kopuruari jarraipen estua egin zaio.

Ondorengo argazkietan ikus liteke neurtzaileek *neurgailuan* elkarrizketa bakoitzaren ezaugarriak sartzeko baliatzen dituzten pantailetakoko batzuk:

---

<sup>3</sup> Elkarrizketa indibidualak ere jaso egin dira (mugikorrarekin hitz egiten entzun diren hiztunak, txakurrarekin hizketan doazenak, atarietako interfonotik...).

<sup>4</sup> Neurraldi horretan, solaskide-taldean aldaketak egon badira (bat joan edo bestea etorri, esaterako), praktika berri gisa jaso da. Edo, neurraldi horretan, solaskide-talde horrek hizkuntza aldatu badu, praktika berri gisa jaso da hori ere. Solaskide-talde berbera hizkuntza berean hizketan topatu bada, baina beste neurraldi batean, jaso egin da.

<sup>5</sup> 2016. urtera arteko edizioetan, hizkuntzak hiru multzotan bereizten ziren: euskara, gaztelania/frantsesa eta beste hizkuntzak.

<sup>6</sup> Solaskidea emakumezkoa edo gizonezkoa bezala sailkatzeko irakurketa soziala dugu oinarri, ez dakigu egiazki solaskidea kategoria horiekin identifikatzen den ala ez.

<sup>7</sup> Hona hemen hiztunak kategoria bakoitzean sailkatzeko jarraitu diren irizpideak: haurrak (2-14 urte), gazteak (15-24 urte), heldu gazteak (25-39 urte), heldu nagusiak (40-64 urte) eta adinekoak (65 urtetik gora). 2021. urtera arteko edizioetan, lau adin-taldeetan sailkatzen ziren behatutako solaskideak. 2021eko edizioan, ordea, helduak bi multzotan sailkatu dira, errealitate soziolinguistikoaren informazio xeheagoa eskuratzeko.

<sup>8</sup> 2017. urteko ediziora arte, koadernoetan biltzen zituzten erabilera-datuak neurtzaileek.



Neurtzaileek bikoteka bildu dituzte hizkuntzen erabilerari buruzko datuak. Hala eta guztiz ere, bi neurtzaileek Neurgailuarekin izan zitzaizkiren intzidentziei aurre egiteko, datuak paperean jasotzeko aukera izan dute une oro.

Azkenik, bestelako irizpide batzuk ere eman zaizkie neurtzaileei:

- Dudazko kasuak ez jaso.
- Neurketa egin aurretik, ibilbidea erreparatu.

## 4.2 NEURKETA DISEINUA

Ikerketak udalerriko kaleetako hizkuntza-erabilera deskribatu nahi duenez, ikerketaren diseinuak kalean hitz egiten duen edozein pertsona potentzialki behatzeko boka-zioa du. Horregatik, kaleetako baldintza desberdinak kontuan hartu behar dira erabakitzeke zenbat behaketa egin, noiz egin eta non egin.

Lehenik eta behin, behaketa zein kaletan egingo den diseinatu da. Kale jendetsuenak eta ezaugarri soziologiko desberdineko jendea neurtzeko aukera ematen dutenekin osatu dira herri bakoitzeko behaketa-ibilbideak, udaleko euskara teknikariarekin adostuta.

Udalerrri eta ibilbide horietan, neurtzaileek bi orduko neurraldiak egin dituzte. Bi orduko iraupen hori ikerketaren Euskal Herriko ediziotik finkatuta dago, eta behatzai-leet behatuen aurrean diskrezioari eusteko gehienezko iraupen bezala ulertzen da

ikerketa honetan. Udalerrri bakoitzean behatu beharreko elkarrizketa-kopuruaren arabera<sup>9</sup> aurreikusi da Elgoibar guztizko neurraldi-kopurua.

Egutegiari eta ordutegiari dagokienez ere, bilatu da, alde batetik, pertsona asko behatu ahal izateko egun eta ordu egokiak izatea; eta bestetik, bizimodu desberdina daramaten pertsonak behatu ahal izateko aukera ematen duen ordutegi-diseinua egitea. Horrez gain, ikerketaren aurreko edizioetatik datorren diseinuarekiko jarraikortasuna bermatu da.

Horrela, *hizkuntzen erabileraren kale-neurketa* burutzeko, herri bakoitzak bere ibilbide- eta neurraldi-kopurua du, udaleko teknikariarekin adostua.

#### 4.2.1 Ibilbideak

Elgoibarko kasuan, ibilbide hauek zehaztu dira:

<p><b>Erosketa giroa:</b></p> <p>San Bartolome – Errosario / Lekueder parkea (ostegunetan azoka) – Azoka aurrea / San Frantzisko – Bernardo Ezenarro – Eroski ingurua.</p>
<p><b>Etiket kanpoko familia giroa:</b></p> <p>Kalegoen plaza – Giza eskubideen parkea / Lekueder – Kalebarren plaza / San Frantzisko-Maala (parkea eta eliza ingurua).</p>
<p><b>Gazte giroa eta Txikiteo giroa:</b></p> <p>San Frantzisko-Maala-Toletxe kalea/Kiroldegia/Kalegoen plaza – Giza eskubideen parkea – Kalebarren plaza.</p>
<p><b>Paseo eta jolaslekuak:</b></p> <p>Kalegoen plaza – Giza eskubideen parkea / Lekueder – Kalebarren plaza / Maalako parkea eta elizaurrea eta parke txikia (Iriondo atzealdekoa)</p>

---

<sup>9</sup> Emaizta fidagarriak eskuratu ahal izateko, aurrez finkatu zen Elgoibaren behatu beharreko gutxieneko elkarrizketa-kopurua.

## 4.2.2 Neurraldiak

Datu-bilketa egin den egutegi eta ordutegia ondoko koadroan zehazten da, ibilbideen arabera antolatuta:

	Eguna		Ordua	Ordu-kopurua
<b>Erosketa giroa</b>	2025-09-23	Asteartea	11:00-13:00	18
	2025-09-24	Asteazkena	11:00-13:00	
	2025-09-25	Osteguna	11:00-13:00	
	2025-09-30	Asteartea	11:00-13:00	
	2025-10-02	Osteguna	11:00-13:00	
	2025-10-07	Asteartea	11:00-13:00	
	2025-10-08	Asteazkena	11:00-13:00	
	2025-10-09	Osteguna	11:00-13:00	
	2025-10-22	Asteazkena	11:00-13:00	
<b>Etiket kanpoko familia giroa</b>	2025-09-21	Igandea	12:00-14:00	8
	2025-10-12	Igandea	12:00-14:00	
	2025-10-19	Igandea	12:00-14:00	
	2025-10-26	Igandea	12:00-14:00	
<b>Gazte giroa eta Txikiteo giroa</b>	2025-09-26	Ostirala	19:00-22:00	12
	2025-10-03	Ostirala	19:00-22:00	
	2025-10-10	Ostirala	19:00-22:00	

	2025-10-17	Ostirala	19:00-22:00	
<b>Paseo eta jolaslekuak</b>	2025-09-22	Astelehena	17:00-19:00	18
	2025-09-23	Asteartea	17:00-19:00	
	2025-09-24	Asteazkena	17:00-19:00	
	2025-09-29	Astelehena	17:00-19:00	
	2025-09-30	Asteartea	17:00-19:00	
	2025-10-01	Asteazkena	17:00-19:00	
	2025-10-06	Astelehena	17:00-19:00	
	2025-10-07	Asteartea	17:00-19:00	
	2025-10-08	Asteazkena	17:00-19:00	
<b>GUZTIRA 56 ORDU</b>				
Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, Elgoibar 2025.				

Kaleetan datuak mugikorraren bidez bildu ahala, aurrez finkatutako gutxieneko solaskide-kopurua gainditzea bermatu zen eta, aldi berean, erabilera-datuen akats-tartea  $\pm 3$  edo txikiagoa zela ziurtatu (% 95eko konfiantza-mailarekin).

### 4.3 EMAITZEN ADIERAZGARRITASUNA

Honako hauek dira ikerketaren datu estatistiko zehatzak:

- **Unibertsoa:** Elgoibarko kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.  
Mugikortasun handiko eremua da kalea, eta ez dago unibertso hori osatzen duten kideen zerrenda ezagutzerik. "Hala bada, ezinbestekoa da laginak erabiltzea; hau da, unibertso osoari buruzko ondorioak ateratzeko, nahitaezkoa da unibertsoaren zati bat ikertzea" (Juaristi, 2003, 65.or.).
- **Lagina:** Behatu diren 3.393 elkarrizketek eta horietan solaskide izan diren 9.202 solaskidek osatu dute lagina.
- **Akats-tartea**<sup>10</sup>: **±% 1,6**koa elkarrizketen lagin osoarentzat, % 95eko konfiantza-mailan eta  $p = % 36.17$  izanik.<sup>11</sup>

Beraz, datu estatistiko sendoak jasotzen dira txostenean.

### 4.4 LAGINARI BURUZ

Ikerketa honetan, Elgoibarko kaleetan behatutako 9.202 solaskideak zein hizkuntzatan hitz egiten ari ziren jaso da, aurreko atalean zehaztu bezala. Metodologiaren ezaugarriak kontuan izanda, ezin da jakin behatu diren pertsona horiek Elgoibarko biztanleak diren ala ez.

Nolanahi ere, udalerriko errealitatera hurbiltzeko asmoz, bertako biztanleriaren ezaugarriekin alderatuko ditugu behatutako solaskideen ezaugarriak, atal honetan. Horrela, begiratuko da ea behatutako lagina udalerriko biztanleriarekiko zer-nolako hurbilketa den, hau da, laginaren ezaugarriak Elgoibartarren ezaugarriekin bat egiten duten, horrek lagunduko baitu emaitzen interpretazioan. Azterketa hori bi aldagai kontuan hartuta egingo da, alde batetik sexua eta, bestetik, adina.

Bestalde, datozen azpi-ataletan, Elgoibarko kale-neurketen azken aurreko edizioko laginarekin ere alderatuko da 2025ekoa. Izan ere, bilakaera-datuen interpretaziorako, lagungarri da ezagutzea Elgoibarko kaleetan urterik urte behatu diren solaskideen profila.

Bide batez, garrantzizkoa da kontuan izatea datu-bilketa egin den ordu-kopurua. Elgoibarko kale-neurketaren aurreko edizioan 40 orduko neurketa egin zen: 30 ordukoa 2025ean neurtutako lau ibilbideetan (erosketa girokoan, etxetik kanpoko familia

---

<sup>10</sup> Erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria. Akats-tartea kalkulatzeko, bi datu erabili dira: neurketan behatutako elkarrizketa-kopurua eta udalerriko ezagutza-datuak (hiztunak eta elebidunen proportzioa). Ikus "Laginaren kalkulurako tresna": <https://soziolinguistika.eus/eu/lagina/>  
Lagin-akatsa kalkulatzeko eredu matematikoaz gehiago jakin nahi izanez gero, jo (Yurramendi eta Altuna 2009) edota (Yurramendi et al. 2013) txostenetara.

<sup>11</sup> Behatutako elkarrizketen artean euskarazko elkarrizketetan parte hartu duten solaskideek osatu duten ehunekoa.

girokoan, gazte/txikiteo girokoan eta paseo/jolaslekukoan) eta 10 ordukoa eskole-  
tako irteeretan. Aldiz, 2025ean 56 orduko neurketa egin da lau ibilbidetan, **ez da  
neurketarik egin eskoletako irteeretan**<sup>12</sup>.

#### 4.4.1 Laginaren eta biztanleriaren osaketa, sexuaren arabera

Lagina eta biztanleriaren banaketa sexuaren arabera aztertuta, nabaria da emaku-  
meen presentzia handiagoa dela laginean, bai 2017an bai 2025ean, gizonena baino.  
2017ko laginean, emakumeak % 58,3 dira eta gizonak % 41,7. 2025eko laginean  
proportzioak antzekoak dira; emakumeena % 59,1 eta gizonena % 40,9 da.


Biztanleria osoari dagokionez, 2025eko datuak kontuan hartuta, emakumeen eta gi-  
zonen arteko banaketa askoz orekatuagoa da: emakumeak % 50,8 eta gizonak %  
49,2. Hau da, laginean emakumeen presentzia handiagoa da biztanleria osoarekin  
alderatuta, eta gizonena, aldiz, txikiagoa. Taulako datuak aintzat hartuta, ikus dai-  
teke 2025eko laginean 5.440 emakume eta 3.762 gizon daudela, eta biztanleria  
osoan, berriz, 5.710 emakume eta 5.533 gizon. Horrek adierazten du laginaren osa-  
eran emakumeek proportzio handiagoa dutela, eta horrek eragina izan dezake laci-  
naren ordezkagarritasunean, bereziki generoaren ikuspegitik egindako azterketetan.

Aipagarria da, halaber, laginaren eta biztanleriaren arteko desberdintasun hori ez  
dela kasualitatea, baizik eta sistematikoki errepikatzen dela bai 2017ko bai 2025eko  
laginetan. Hala, generoaren araberako banaketa hau kontuan hartzea funtsezkoa  
izango da emaitzen interpretazioan, bereziki hizkuntza-erabileraren joerak azter-  
tzean.

---

<sup>12</sup> 2025ean eskola irteeretako neurketarik egin ez bada ere, 2017ko emaitza orokorretan eskoletako ibilbideak  
ere kontuan hartuko dira; izan ere, 2017ko emaitzetan eskoletako ibilbideak kontuan hartzen ez baditugu txikia  
baita behatutako haurren eta gazteen kopurua; 1.385 eta 279, hurrenez hurren.

### 1. Grafikoa eta Taula: LAGINA ETA BIZTANLERIA SEXUAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2017-2025



1. TAULA: LAGINA ETA BIZTANLERIA SEXUAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2017-2025

Sexua	Lagina 2017		Lagina 2025		Biztanleria 2025	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumea	5.435,0	58,3	5.440,0	59,1	5.710,0	50,8
Gizona	3.892,0	41,7	3.762,0	40,9	5.533,0	49,2
GUZTIRA	9.327	100,0	9.202	100,0	11.243	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025; EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2021


#### 4.4.2 Laginaren eta biztanleriaren osaketa, adinaren arabera

Ikusten denez, grafikoek eta taulako datuek adin-taldean banaketaren bilakaera erakusten dute 2017ko laginaren, 2025eko laginaren eta 2025eko biztanleriaren artean.

Bi neurketetan hurrek (2-14 urte) eta gazteek (15-24 urte) laginean izan duten pisua antzekoa da; hurrek % 22-24 ingurukoa eta gazteek %10 ingurukoa. Helduen pisua, aldiz, zertxobait jaitsi egin da 2025eko neurketan; eta adinekoena igo egin da.

Laginean adin-taldeek duten pisua eta biztanlerian dutena alderatzen baditugu be-launaldi gazteen pisua handiagoa da laginean biztanlerian baino, eta helduena txikiagoa. Portaera hori orokorra da; izan ere, hurrek eta gazteek joera gehiago baitute kalean ibiltzeko helduagoek baino. Dena den nabarmentzekoa da 2025eko neurketan adineko dezente gehiago neurtu direla 2017koan baino. Hala, adinekoek biztanlerian duten pisua gainditu egin dute laginean.

## 2. Grafikoa eta Taula: LAGINA ETA BIZTANLERIA ADINAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2017-2025



2. TAULA: LAGINA ETA BIZTANLERIA ADINAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2017-2025

Adina	Lagina 2017		Lagina 2025		Biztanleria 2025	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Haurrak (2-14 urte)	2.256	24,2	2.036	22,1	1.599	14,2
Gazteak (15-24 urte)	1.001	10,7	924	10,0	1.026	9,1
Helduak (25-64 urte)	4.572	49,0	3.907	42,5	5.980	53,2
Adinekoak (65etik gora)	1.498	16,1	2.335	25,4	2.638	23,5
GUZTIRA	9.327	100,0	9.202	100,0	11.243	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025; EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren zentsua, 2021


### 4.4.3 Laginaren osaketa, espazioen edota giroen arabera

Laginaren ibilbideen arabera banaketari dagokionez, esan behar da oso ohikoa dela desorekak egotea ibilbideetan jasotako laginen artean, kalean ibiltzen den jende kopurua aldatu egiten baita ibilbide batetik bestera. 2025ean, laginaren osaketari dagokionean, Elgoibarren antzeko presentzia dute hiru espazio edota giroek; hain zuzen, *paseo eta jolaslekuak*, *erosketa giroak*, eta *gazte/txikiteo giroak*. Aldiz, presentzia txikiagoa du *etxetik kanpoko familia giroak*.

Bilakabideari erreparatuta, ikus daiteke ibilbideen presentzia oro har mantendu egin dela kasu gehienetan 2017tik 2025era bitartean; eta, aldaketa nabarmenena *gazte/txikiteo giroan gertatu dela*, 2017an lagin orokorrean % 19ko pisua izatetik,

2025ean % 26,6 izatera igaro baita. Hortaz, kontuan izan behar da ibilbide horietako euskararen erabileraren ezaugarriek baldintzatu dezaketela emaitza orokorra.

#### 4. Grafikoa eta Taula: LAGINAREN BILAKAERA, IBILBIDEKA. ELGOIBAR, 2017-2025<sup>13</sup>



Ibilbidea	Lagina 2017		Lagina 2025	
	Abs.	%	Abs.	%
Paseo eta jolaslekuak	2.051	30,9	2.692	29,3
Gazte giroa eta Txikiteo giroa	1.263	19,0	2.452	26,6
Etxetik kanpoko familia giroa	1.238	18,6	1.445	15,7
Erosketa giroa	2.090	31,5	2.613	28,4
GUZTIRA	6.642	100,0	9.202	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

#### 4.4.4 Laginaren bilakaera

Atal honetan, laginaren tamaina aztertuko da 2014tik 2025ra bitarte. 3. grafikoa ikus daitekeen bezala igoera nabarmena izan da 2014tik 2017ra bitartean, 6.251 lagunetik 9.327 lagunera igaroz. Ondoren, 2025ean, laginaren tamaina apur bat jaitsi da, 9.202ra, baina oraindik ere 2014ko balioa baino askoz handiagoa da. Beraz, 2014 eta 2017 artean % 49,2ko igoera izan da laginaren tamainan, eta 2017tik 2025era % 1,3ko jaitsiera txikia izan da. Beraz, laginaren tamaina egonkortu egin da azken urteetan, horrek eragina izan dezake datuen fidagarritasunean.

<sup>13</sup> Kontuan hartu behar da 2017an 2.685 lagun gehiago neurtu zirela ikastetxe inguruetakoa ibilbideetan. 2025ean ez da neurketarik egin ibilbide horietan.

Bestalde, biztanleriaren datuak kontuan hartuta, ez da aldaketa nabarmenik hiru urtetan; 11.300 biztanle inguru ditugu Elgoibarren 2014tik 2025era.

### 3. Grafikoa eta Taula: LAGINAREN BILAKAERA. ELGOIBAR, 2014-2025



3. TAULA: LAGINAREN BILAKAERA. ELGOIBAR, 2014-2025

	2014	2017	2025
Biztanleria	11.383	11.243	11.315
Lagina	6.251	9.327	9.202
Biztanleriaren %	54,9	83,0	81,3

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025; EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2021


## 5 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA

### 5.1 DATU OROKORRA

Elgoibarko kaleetan entzundako 10 elkarrizketetatik 3 izan dira euskaraz (% 36,2). Gainerako gehienak gazteleraz (% 61,6) eta gutxi batzuk beste hizkuntzetan (% 2,2).<sup>14</sup>

<sup>14</sup> Gogora ekarri behar da emaitzen adierazgarritasuna aurkeztu den atalean esan den bezala (4.3 atala), Elgoibarko behaketan  $\pm$ 1,6ekoa izan dela akats-tartea, eta, beraz, emaitzetan gorabeherako tartea hori kontuan hartu behar dela.

**5. Grafikoa eta Taula: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA. DATU OROKORRA. ELGOIBAR, 2025**



5. TAULA: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA. DATU OROKORRA. ELGOIBAR, 2025		
Hizkuntza	Lagina	Erabilera %
Euskaraz	3.328	36,2
Gaztelaniaz	5.670	61,6
Frantsesez	2	0,0
Beste hizkuntzetan	202	2,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.202</b>	<b>100,0</b>


Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

## 5.2 BILAKAERA

2025ekoa Elgoibarren Soziolinguistika Klusterrak egindako hirugarren neurketa da<sup>15</sup>: aurretik 2014 eta 2017an egin zen. Grafikoan beraz, azken 11 urtetan gaztelera, euskara eta beste hizkuntzen erabilerak izandako bilakaera adierazten da.

<sup>15</sup> Elgoibarren 2000tik aurrera egin izan dira neurketak, baina 2014a baino lehenagoko neurketa horiek ez ditu Soziolinguistika Klusterrak egin. Dena dela, 5.4 atalean 2000ko, 2006ko, eta 2010eko datuak jaso dira.

6. Grafikoa eta Taula: HIZKUNTZEN KALE ERABILERAREN BILAKAERA. ELGOIBAR, 2014-2025



6. TAULA: HIZKUNTZEN KALE ERABILERAREN BILAKAERA. ELGOIBAR, 2014-2025

Hizkuntza	2014	2017	2025
Euskaraz	39,7	35,9	36,2
Gaztelaniaz	58,4	61,9	61,6
Beste hizkuntzetan	1,9	2,2	2,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Lagina	6.251	9.327	9.202

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

Ikus daitekeen moduan, azken urteetan euskararen erabilerak 3,5 puntu egin du behera: 2014ean % 39,7koa zen eta 2025ean % 36,2koa.

2017tik 2025era ez du ia aldaketarik izan (2017an % 35,9 izatetik 2025ean % 36,2 izatera pasa da). Beraz, esan daiteke orokorrean hizkuntzen erabilera nahiko egonkor mantendu dela azken urteetan.

### 5.3 UDALERRIKO INGURU SOZIOLINGUISTIKOA

Herriko kaleetan egiten den hizkuntzen erabilera aztertzeke eta errealitate hori hobeto ulertzeke udalerriko zenbait aldagai soziolinguistiko aintzat hartzea ezinbestekoa da.

Atal honetan, kaleko erabilerarekin batera populazioarekin zuzenean loturiko hiru aldagai aztertuko dira: biztanleriaren lehen hizkuntza, etxeko erabilera eta euskaraz

aritzeko gaitasuna. Aldagai horiek Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuan jasotzen ditu herriz-herriz EUSTATEk.

Hala aztertu dute Sorolla, Altuna eta Larrea egileek 2019an eginiko *Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak* izeneko ikerketan (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 11), eta, era berean, biztanleriaren aldagai soziolinguistiko horiek lantzen dira Eusko Jaurlaritzak argitaratzen dituen *Mapa Soziolinguistikoetan* ere (Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila).

Beraz, honako lau aldagai hauek hartu dira aztergai: 1) EUSTATEk ematen duen udalerriko euskara-gaitasuna, hots, zenbat biztanle diren euskaldun, ia euskaldun edo erdaldun<sup>16</sup>; 2) biztanleen artean lehen hizkuntza<sup>17</sup> euskara, erdara, euskara eta gaztelania edo beste bat dutenen ehunekoak; 3) etxeko hizkuntzen erabilera<sup>18</sup>, euskara, erdara, biak edo beste bat erabiltzen diren alegia; eta 4) ikerketa honetan jasotako hizkuntzen kaleko erabileraren datua.

Atal honen helburua da lau aldagai soziolinguistiko horiek baliatuz udalerriko inguru soziolinguistikoaren argazkia eskaintzea. Aldagai horiek, ordea, ez dira konparagarriak bere horretan, askotariko errealitateen berri ematen dutelako.

Alde batetik, hizkuntza hitz egiten jakitea norberaren ezaugarri kognitiboa da, errealitate psikologiko batutzailea, hizkuntza berriak eskura baitaitezke, lehendik ikasitako beste hizkuntza batzuen ezagutza kaltetu gabe. Erabilera, aldiz, ezaugarri kolektiboa, familiakoa edota soziala da (Vila i Moreno 2021, 26). Esan daiteke, beraz, testuinguru sozial eleaniztun batean, ezagutzak ez duela hizkuntzaren erabilera baldintzatzen, hizkuntza erabiltzeko aukera baino ez baitu sortzen (Vila i Moreno 2021, 26) edo eskaintzen (Ramallo 2020).

Kontuan hartzekoa da, bestalde, desberdintasun metodologiko nabarmenak daudela kale-erabilera, etxeko erabilera, lehen hizkuntza eta euskara-gaitasuna neurtzeko moduan. Laburbilduz, aztertzen ari garen aldagai horien arteko alderaketak oso tentuz hartu beharrekoak dira, honako arrazoi hauek tarteko:

<sup>16</sup> Kategoría horiek euskararen jakite-mailari buruz egiten diren lau galderari erantzundakoaren arabera lortu dira: “ulertzen duzu?”, “hitz egiten duzu?”, “irakurtzen duzu?”, eta “idazten duzu?”. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak:

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez

<sup>17</sup> Ikerketa honetan, EUSTATEk ematen duen ama-hizkuntzaren datua erabiltzen da lehen hizkuntza modura, hots, erakunde horren arabera, 3 urte bete arte ikasten den lehenengo hizkuntza. Lau aukera daude: lehen hizkuntza moduan umetan euskara bakarrik ikasi duten pertsonak, gaztelania bakarrik ikasi dutenak, euskara eta gaztelania ia aldi berean ikasi dutenak eta, azkenik, lehen hizkuntzatzat euskara eta gaztelania ez den besteren bat izan dutenak.

<sup>18</sup> Etxean erabiltzen den hizkuntza etxean gehienetan hitz egiten den hizkuntza da. Atal honetan, lehen hizkuntzarako erantzun berberak onartzen dira: euskara, gaztelania, biak edo besteren bat (EUSTAT).

- **Kale-erabilera behaketa bidez jasotzen da**, beraz, hizketan ari dena horretaz konturatu ere ez da egiten; **etxeko erabilera-datua**, aldiz, **inkesta bidez jasotzen da**, eta norberak ematen du bere etxean hitz egiten duen hizkuntzaren inguruko informazioa.
- **Kale-erabileran ez da ezinbestean udalerrian bizi direnen erabilera** islatzen bere horretan, kalean behaturiko elkarrizketen erabilera jasotzen baita, izan bertan erroldatutako biztanleen ala ez.
- **Kale-erabilera gertuko artekoa** izan ohi da, eta, sarritan, adinkide be-rekoen artean gertatzen da. Aldiz, **etxeko erabilera familia eremuko da**, normaletan belaunaldi ezberdinen artekoa (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 16).

Nolanahi ere, azaldutako ñabardura horiek kontuan izanda ere, aurrez egin diren ikerketen arabera, esan daiteke honako korrelazio hauek izan, badirela:


- **Zenbat eta udalerrri euskaldunagoa izan orduan eta handiagoa da euskararen kale-erabilera.** Baina, banaketa hori ez da lineala eta ez uniforme, eta udalerrien artean hizkuntza portaerari buruzko desberdintasunak ageri dira (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 12).
- **Lehen hizkuntza modura euskara jaso dutenen proportzioa handia den udalerrietan, gehienetan, are eta handiagoa da euskararen kale-erabilera.** Lehen hizkuntzaren proportzioak behera egin ahala, hala egiten du euskararen erabilerak (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 15).
- **Zenbat eta handiagoa izan etxeko erabilera, orduan eta handiagoa da kaleko erabilera.** Nabarmentzekoa da bestalde, kaleko erabilera etxekoa baino altuagoa dela udalerrri gehienetan. Gainera, alde hori ez da murrizten etxean euskaraz asko hitz egiten den udalerrietan (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 16).
- **Ezagutza, kale-erabilera, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera:** aldagai soziolinguistikoen euskarari dagokion datuetan, balio altuenetik txikienera hurrenkera hori da ia udalerrri guztietan ohikoena (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 19).

Beraz, aztertu ditzagun Elgoibarko udalerrian bildu diren aldagai soziolinguistikoen datuen arteko harremana.

### 5.3.1 Elgoibarko aldagai soziolinguistikoak

Elgoibarko aldagai soziolinguistikoei erreparatuz, ikus daiteke balio altuena duena euskara gaitasuna dela (% 61,74), ondoren lehen hizkuntza (% 38,2), jarraian kale erabilera (% 36,2) eta, azkenik, etxeko erabilera (% 27,5).

**7. Grafikoa eta Taula: ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOEN ALDERAKETA. ELGOIBAR, 2021-2025**



7. TAULA: KALE ERABILERA, HIZKUNTZA-GAITASUNA, LEHEN HIZKUNTZA, ETA ETXEKO ERABILERA. ELGOIBAR, 2025

	Kale erabilera (2025)	Hizkuntza-gaitasuna (2021)	Lehen Hizkuntza (2021)	Etxeko erabilera (2021)
Euskara / Euskaldunak	36,2	61,7	38,2	27,5
Ia euskaldunak	-	16,1	-	-
Gaztelania	61,6	22,2	46,7	49,1
Euskara eta gaztelania	-	-	9,4	19,2
Beste hizkuntzak	2,2	-	5,8	4,2
GUZTIRA	100	100	100	100

Iturria. EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren zentsua, 2021; Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

Euskara-gaitasunari dagokionez, ikus daiteke 10 elgoibartarretik ia 8 euskaraz jarduteko edo, gutxienez, euskara ulertzeko gai direla. % 61,7 euskaldunak dira eta % 16,1 euskara ulertzeko gai dira.

Gaitasun hori kontuan izanda, VII. Mapa Soziolinguistikoak **3. gune soziolinguistikoan** kokatzen du Elgoibar (% 50-80 udal-gaitasuna) (Eusko Jaurlaritzak. Kultura eta

Hizkuntza Politika Saila 2025, 43)<sup>19</sup>. Mapa horrek ondoren zehazten den informazioa eskaintzen du 3. gune hori ezaugarritzeko:

---

*Hirugarren gune soziolinguistikoko udalerrietan 506.941 pertsona bizi dira, EAEko biztanleria osoaren laurdena (% 24). Horietatik, 322.592 dira euskaldunak, hau da, euskaldun guztien herena baino gehiago (% 35,9). Bizkaiko eta Gipuzkoako 85 udalerrri daude gune honetan. 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak dira, Durango, Zarautz, Arrasate eta Eibar izan ezik. Industria indartsua duten udalerrriak dira horietariko asko, tamaina ertainekoak, eta komunikazio-ardatz nagusietan kokatuak.*

*(Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2025, 44).*

---

Elgoibarrek 11.315 biztanle ditu, hau da, herri ertaina da eta industriak presentzia handia du. Horrez gain Eibartik gertu dago eta Donostia eta Bilbo lotzen dituen autopista bertatik pasatzen da. Beraz, esan daiteke 3. gune soziolinguistikoko herrien ezaugarri asko betetzen dituela.

**Euskara-gaitasuna eta lehen hizkuntzaren arteko** aldea ohikoa da, desberdintasun horren euskarak azken 30-40 urteetan izandako hiztun irabazia islatzen baitu. Aldaketa hori hezkuntza-sistemaren eta helduen ikasketa-prozesuaren ondorio izan da. Jadanik aipatu bezala, Elgoibarko biztanleen % 61,7k euskara-gaitasuna dute eta % 38,2k lehen hizkuntza gisa jaso dute, bakarrik edo gaztelerekin batera. Bi datu horiek hurrenez-hurren jarrita, ikus daiteke elgoibartarren % 23,5ek euskara bigarren hizkuntza gisa jaso dutela. **Euskara-gaitasuna eta etxeko erabileraren** arteko aldea ere ohikoa da, izan ere, lehen aipatu bezala, etxeetan belaunaldi desberdinetako kideak elkartzen dira. Sarri asko, kide horiek euskara-gaitasun desberdina dute, edota horietako batzuk gaztelaniaz euskaraz baino errazago hitz egiten dute, eta, beraz, etxe askotan euskararen erabileran bereziki eragiten duten faktoreak ahulak dira: harreman-sarea eta erraztasuna (Aizpurua Espin 2018, 44).

### **Matematikoki espero daitekeen euskararen erabileraz, erabilera isotropikoaz**

Arestian zehazturiko lau aldagai soziolinguistikoez gain, bada kaleko erabilera ulertzeko interesgarri izan daitekeen bosgarren bat ere, hain zuzen, J.L. Alvarez Enparantza Txillardegiren eredu matematikoan (2001) oinarritutako erabilera isotropikoa. Datu horrek, elebitasun sozialeko eremutan, bi hizkuntzen ezagutza unibertsala ez denean, biztanleek duten hizkuntzak erabiltzeko aukera azaltzeko balio du. Hau da, eredu horren bitartez, egoera hipotetiko eta gune jakin batean, matematikoki espero

---

19 Herriko ezagutza-datuak ez ezik, lehen hizkuntzaren, etxeko erabileraren eta kale-erabileraren emaitza enpirikoetan oinarrituz, "Euskarak gaztelaniaz bezainbesteko presentzia (EG)" duen udalerrien multzoan kokatzen da (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 24). Multzo soziolinguistikoko hori 2016ko Inkesta Soziolinguistikoko eta 2017-2018 urte bitartean egindako udal neurketen emaitzak aintzat hartuz osatu zen, "Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. Udalerrri mailako analisia. Laburpena eta ondorioak" izeneko txostenean (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019).

daitekeen euskararen erabilera kalkula daiteke, eremu horretako elebidun dentsitatea kontuan izanda, euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz egingo dutela planteatuta (euskararekiko leialtasun erabatekoa dutelakoan) eta hizketaldian parte hartzen duten balizko taldeen pisua aurreikusita.

Eredu hori aintzat hartuta, eta egoera hipotetiko hori udalerrriaren kasura egokituta, **Elgoibarko udalerriko erabilera isotropikoaren** kalkulua berritu da ikerketa honetan<sup>20</sup>, euskal hiztunen hizkuntza-hautua, neurri batean behintzat, ulertzen lagun dezakeelakoan.

Kalkuluak eginda, hortaz, % 30,7koa da baldintza hipotetiko horietan Elgoibarko euskararen erabilera isotropikoa (edo espero daitekeen erabilera), kontuan izanik udalerriko biztanleen euskaldunen proportzioa % 61,7koa dela. Beraz, behatutako erabilera erreala (% 36,2) matematikoki espero daitekeen erabilera baino zertxobait altuagoa da.

Alabaina, badira datu hipotetiko horretatik kale-erabileraren datu erreala gorantz aldentzeko arrazoiak, besteen artean, honako hauek: alde batetik, kaleko harreman sozialak zorizkoak ez izatea nagusiki. Hortaz, gerta daiteke harreman horietan aurrez ezarritako hizkuntza-erabileraren ohituretan hizkuntza bat edo bestea gailentzea. Beste alde batetik, kontuan izan behar da euskaldunek euskaldunekin elkartzerakoan beti euskaraz egitea (% 100eko leialtasuna) ia ezinezkoa dela, sarri, solaskideen inguruko informazioa ez-nahikoa delako, (Iriberry eta Uriarte 2012, 201)<sup>21</sup>, euskaraz egiteko erosotasunik ez dutelako edo euskaraz aritzeko sarerik edo konfiantzazko giro nahikorik ez dutelako (Aморrortu, Goirigolzarri, eta Ortega 2021, 24).

Beraz, laburbiltzeko, esan daiteke udalerriko euskararen ezagutza-datua kalean egiten den erabileraren iragarle ona izan daitekeen arren (udalerrian zenbat eta euskaradun gehiago izan orduan eta euskararen erabilera handiagoa espero daiteke), beste aldagai batzuk ere aintzat hartu behar direla, ezinbestez, hizkuntzen erabileraren konplexutasuna ulertzeko. Gainera, baldintza soziolinguistikoetara mugatu gabe, faktore sozioekonomikoak eta soziodemografikoak ere adierazgarriak izan daitezke (nahiz eta azterketa honetan ezin ditugun nahi bezala kontuan izan).

---


<sup>20</sup> Eragiketa matematiko zehatza honako formula honen bitartez osatzen da:  $PB = mB (w_2ex_2 + w_3ex_3 + w_4ex_4)$ , non: PB = euskararen erabilera-maila; W2 = bikoteen pisua, W3 = hirukoteen pisua, w4 = laukoteen pisua; mB = euskararekiko leialtasuna, ex = elebidunen proportzioa.

Gaian sakontzeko, ikus (Alvarez Enparantza, Txillardeggi 2001) eta (Isasi eta Iriarte 1998).

<sup>21</sup> Besteak beste, gogora daiteke Euskaraldiaren ariketa sozialaren gakoetako bat dela txaparen erabilera. Hau da, txaparen bidez, solaskideak euskara ulertzen duela jakin daiteke, eta hori ezagutzea faktore erraztailea da hiztunarentzat, euskara erabil dezan.

## 5.4 UDALERRIKO ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOAK

### 8. Grafikoa eta Taula: EUSKARA-GAITASUNAREN, LEHEN HIZKUNTZAREN, ETXEKO EUSKARAREN ERABILERAREN ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. ELGOIBAR, 1981-2025<sup>22</sup>



8. TAULA: EUSKARA-GAITASUNAREN, LEHEN HIZKUNTZAREN, ETXEKO EUSKARAREN ERABILERAREN ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. ELGOIBAR, 1981-2025

%	1981	1986	1991	1996	2000-2001	2006	2010-2011	2014	2016	2017	2021	2025
Hiztun euskaldunak	52,2	53	56,2	59,2	60,9	59,8	58,1	-	62,3	-	61,7	-
Lehen Hizkuntza - Euskara	-	-	50,8	47	45,7	43,6	41	-	39,4	-	38,2	-
Etxeko Hizkuntza - Euskara	-	-	36,8	31	33,7	28	30,4	-	32	-	27,5	-
Kale Erabilera - Euskara	-	-	-	-	38,3	39,7	41,6	39,7	-	35,9	-	36,2

Iturria. EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren zentsua, 2021; Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

- **Euskara-gaitasuna** ia % 10 igo da. 1981ean, euskara gaitasuna % 52,2 zen eta 2025ean % 61,7. 2001tik 2011era % 60,9tik % 58,1era jaitsi zen, baina 2011etik 2016ra 4,2 puntu igo zen. 2016tik 2021era 0,6 puntu jaitsi bada ere, orokorrean goranzko joera izan du eta lehen aldiz neurtu zenetik 9,5 puntu handitu da.
- Gero eta jende gutxiago ari da euskara **lehen hizkuntza** gisa jasotzen. 1991ean, lehen aldiz datu hori neurtu zenean, elgoibartarren % 50,8k jaso zuen euskara lehen hizkuntza gisa. Aldagai horrek beheranzko joera konstantea izan du eta

<sup>22</sup> Elgoibarren 2000 urtetik aurrera bi urtean behin egin izan dira Kale Neurketak, 2002an izan ezik. Grafiko eta taula hauetara 2000ko, 2006ko, eta 2010eko datuak ekarri dira. 2014tik atzerako neurketa horiek ez ditu Soziolinguistika Klusterrak egin.

2021ean euskara lehen hizkuntza dutenak % 38,2 dira. Beraz, 20 urtetan % 12,6 jaitsi da.


- **Etxeko hizkuntzari** dagokionez, lehen aldiz neurtu zenetik apur bat jaitsi da: 1991ean etxeko erabilera % 36,8 zen eta 2021ean % 27,5 eta horiek izan dira baliorik altuena eta baxuena. Orokorrean nahiko gorabeheratsua izan da eta gorakada eta beherakadak izan ditu.
- **Kaleko erabilerak** zertxobait behera egin du: 2000an % 38,3 zen eta 2025ean % 36,2. Erabilerarik baxuena 2017an neurtu zen, % 35,9koa alegia.

Laburbilduz, datuek erakusten dute euskara menperatzen dutenen kopurua handitzen ari dela, baina lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza gisa duen presentzia murrizten ari dela. Kale-erabileran ez da gorakadarik antzematen. Horrek iradokitzen du euskararen ezagutza zabalitzen ari den heinean, erabilera soziala eta transmisioa ahultzen ari direla.

## 5.5 BESTE EREMU GEOGRAFIKOETAKO ERABILERA

Ondorengo grafiko eta taulan, Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan, Debarbarrenan eta Elgoibarren jasotako datuak bildu dira.

### 9. Grafikoa eta Taula: ERABILERA, LAGINA ETA AKATS-TARTEA. HAINBAT EREMU GEOGRAFIKO. 2025



9. TAULA: EUSKARAREN ERABILERA, LAGINA ETA AKATS-TARTEA. HAINBAT EREMU GEOGRAFIKO. 2025				
Eremua	Biztanleria	Lagina	Erabilera %	Akats-tartea %
Elgoibar	11315	9202	36,2	2,5
Debabarrena	43697	23178	24,3	0,9
Gipuzkoa	713902	249711	30,6	0,7
EAE	2178619	489073	15,7	0,4

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

Grafikoan ikus daitekeen moduan, Elgoibarko euskararen erabilera (% 36,2) beste eremuetako batez bestekoaren gaineretik dago. Alderik handiena EAEkoarekin erkatzean ikus daiteke: erkidegoko batez besteko erabilera % 15,7 da, hau da, Elgoibarko euskararen erabilera EAEko batez besteko erabileraren bikoitza baino gehiago da. Gipuzkoarekin (% 30,6) eta Debabarrenarekin (% 24,3) alderatuz, desberdintasuna ez da hain handia, baina, hala eta guztiz ere, Elgoibarko batez besteko euskararen erabilera handiagoa da.

**1. Mapa. ESKUALDEKO ZENBAIT UDALERRITAKO HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETA. DEBABARRENA, 2021**



Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, 2021

Euskal Herriko *Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketetako* datuen arabera, % 24,3koa izan da Debarreneko eskualdean euskararen kale-erabilera (Altuna Zumeta eta Iñarra Arregi 2022). Aurreko mapan, eskualde horretako udalerrietan egin diren *neurketetako* datuak bildu dira.


Mapan ikus daiteke euskararen erabilera handiena Deban behatu dela, non %62,3 den. Jarraian Elgoibarren (%36,2) eta azkenik Eibarren (%13). Datu horiei erreparratuz, ikus daiteke desberdintasun handiak daudela eskualdeko udalerririk batetik bestera.

## 6 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, UDALE- RRIKO IBILBIDEETAN

### 6.1 DATU OROKORRAK, IBILBIDEETAN

Herritarrek kalean zer hizkuntza darabilten aztertzea abiapuntu hartuta, herrian bitzita soziala ageriko den eremuetan egiten da behaketa. Eremuak zein izango diren zehazteko, udalerriko harreman-gune nagusiak kokatzen jarduten da, eta behin eremuak definituta, udaleko teknikariek elkarlanean jarraitu beharreko ibilbideak zein izango diren erabakitzen da. Elgoibarko kasuak berezitasun bat du: **ibilbideak** eremu geografikoen baitan zehaztu beharrean, **bizipen edo jarduera sozialen baitan zehazten dira**. Horrela, lau giro bereizten dira: paseo eta jolaslekuak, gazte giroa eta txikiteo giroa, erosketa giroa eta etxetik kanpoko familia giroa. Eremu horietan jasotako datuak ondorengo grafiko eta taulan ikus daitezke:

**10. Grafikoa eta Taula: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA IBILBIDEAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2025**




%	Erosketa giroa	Etxetik kanpoko familia giroa	Gazte giroa eta Txikiteo giroa	Paseo eta jolaslekuak
Euskaraz	27,2	33,6	38,9	43,7
Gaztelaniaz	70,2	65,3	59,2	53,5
Frantsesez	0,0	0,0	0,0	0,1
Beste hizkuntzetan	2,6	1,0	1,9	2,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Lagina</i>	2.613	1.445	2.452	2.692

Elgoibarren euskara gehien paseo eta jolaslekuetan entzuten da. Eremu sozial horretan euskararen erabilera % 43,7 da. Gazte giroa eta txikiteo giroan, % 38,9ko erabilera behatu da eta etxetik kanpoko familia giroan % 33,6koa. Erabilera baxuena duen egoera erosketa giroa da, non euskararen erabilera % 27,2 den.

## 6.2 BILAKAERA IBILBIDEETAN

### 11. Grafikoa eta Taula: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA IBILBIDEKA. ELGOIBAR, 2014-2025



11. TAULA: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA IBILBIDEKA. ELGOIBAR, 2014-2025

%	2014	2017	2025
Erosketa giroa	23,8	23,0	27,2
Lagina	1.187	2.090	2.613
Paseo eta jolaslekuak	52,3	43,2	43,7
Lagina	1.348	2.051	2.692
Etxetik kanpoko familia giroa	37,9	28,0	33,6
Lagina	725	1.238	1.445
Gazte giroa eta Txikiteo giroa	24,5	30,8	38,9
Lagina	719	1.263	2.452

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

Grafikoan ikus daitekeen moduan, 2014tik 2025era giro sozial bakoitzeko euskararen erabilerak gorabeherak izan ditu eta eremu guztietako joerak ez dira berdinak izan: paseo-jolaslekuetako eta etxetik kanpoko familia giroan behera egin du; baina gazte eta txikiteo giroan eta erosketa giroan gora egin du.


- Beherakada gertatu da hurrengo eremuetan:
  - *Paseo eta jolaslekuak* 52,3 43,7
  - *Etxetik kanpoko familia giroa* 37,9 33,6
- Igoera behatu da hainbat eremutan:
  - *Gazte eta txikiteo giroa* 24,5 38,9
  - *Erosketa giroa* 23,8 27,2

## 7 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERA

### 7.1 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA

Jarraian, Elgoibarko kaleetako euskararen erabileraren berri emango da sexu alda-gaia kontuan hartuta, hau da, emakumezkoen eta gizonetzkoen hizkuntzen erabileran desberdintasunik dagoen begiratuta.

#### 12. Grafikoa eta Taula: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA SEXUAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2025



	Emakumea	Gizona
Euskaraz	38,7	32,5
Gaztelaniaz	59,6	64,6
Frantsesez	0,0	0,1
Beste hizkuntzetan	1,8	2,8
GUZTIRA	100,0	100,0
<i>Lagina</i>	5.440	3.762


Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

Ikusten denez, hizkuntza-erabilera aldatu egiten da gizonen eta emakumeen artean: emakumeen artean euskararen erabilera handiagoa da (% 38,7), gizonen artean baino (% 32,5). Bi taldeen artean aldea izatea ohiko joera bilakatu da azken urteotan, alegia, azken neurketetan Euskal Herriko kaleetan emakumezkoek euskaraz hitz egiten gizonetzkoek baino zertxobait gehiago entzun zaie.

## 7.2 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, SEXUA-REN ARABERA

Elgoibarren egin diren kale-neurketa guztietan emakumeen euskararen erabilera altuagoa izan da gizonena baino. Hala, hiru neurketetan emakumezkoen erabilera 6-7 puntu altuagoa izan da gizonezkoena baino. Ikus hurrengo grafikoa.

**13. Grafikoa eta Taula: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2014-2025**




13. TAULA: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2014-2025			
%	2014	2017	2025
Emakumea	42,5	39,0	38,7
<i>Lagina</i>	3.586	3.879	5.440
Gizona	35,9	31,6	32,5
<i>Lagina</i>	1.666	2.763	3.762

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

### 7.3 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA

Adinaren araberako neurketa egitean, biztanleria bost multzotan banatzen da: haurrak (2-14 urte artekoak); gazteak (15-24 bitartekoak); heldu gazteak (25-44 bitartekoak); heldu nagusiak (45-64 urte artekoak); eta, azkenik, adinekoak (65 baino gehiago dituztenak).

14. Grafikoa eta Taula: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA ADINAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2025



14. TAULA: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA ADINAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2025

	Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Heldu gazteak (25-44 urte)	Heldu nagusiak (45-64 urte)	Adinekoak (65etik gora)
Euskaraz	54,8	29,6	46,5	25,0	19,6
Gaztelaniaz	43,0	69,5	49,2	72,9	79,9
Frantsesez	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1
Beste hizkuntzetan	2,2	1,0	4,4	2,2	0,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Lagina	2.036	924	2.364	1.543	2.335

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

Ikusten denez, adin-taldeen arabera hizkuntza-erabileraren banaketa ez da berdina:


- Euskara gehien erabiltzen duten adin-taldeak **haurrak** (% 54,8) **eta heldu gazteak** (% 46,5) dira. Talde horiek Elgoibarko euskararen erabileraren batez bestekoaren gaineratik daude (% 36,2). Nabarmentzekoa da bi adin-talde hauen arteko interakzioak ugariak izaten direla, hain zuzen, guraso eta seme-alaben arteko elkarrizketak izaten baitira.
- **Gazteen eta heldu nagusien** erabilera-datuak apalagoak dira (% 29,6 eta 25,0 hurrenez hurren).
- Eta azkenik, euskara gutxien **adinekoen** artean entzun daiteke. Talde horretan erabilera % 19,6koa da.

Datu hauek ikusita, argi dago belaunaldien arteko transmisioan eta erabilera-ohituretan aldaketak daudela. Haurren artean euskararen erabilera altua da, baina, gazteen eta adin-talde helduenen artean gaztelaniaren nagusitasunak adierazten du erabilera hori ez dela belaunaldiz belaunaldi modu homogeneoan mantentzen.

## 7.4 EUSKARA GAITASUNA ADINAREN ARABERA

Ondorengo grafiko eta taulan, euskara gaitasuna eta kale-erabilera erakusten dira adin-tarteetan banatuta.

15. Grafikoa eta Taula: EUSKARA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2025



	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Euskararen kale-erabilera	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
<b>Haurrak (2-14 urte)</b>	1.468	91,8	126	7,9	2.036	54,8
<b>Gazteak (15-24 urte)</b>	910	88,7	53	5,2	924	29,6
<b>Helduak (25-64 urte)</b>	3.291	55,0	1.217	20,4	3.907	38,0
<b>Adinekoak (&gt;64 urte)</b>	1.272	48,2	411	15,6	2.335	19,6
<b>GUZTIRA</b>	6.941	-	1.807	-	9.202	100

Iturria. EUSTAT, 2021; Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025. Sozio-linguistika Klusterra.

EUSTATen datuen arabera, haurrak dira gaitasun handiena dutenak (% 91,8). Gertutik doakie gazteak (% 88,7), eta nabarmen baxuagoa da helduen (% 55,0) eta adinekoen (% 48,2) euskara-gaitasuna.


Ikus daitekeen bezala, bereziki handiak dira gaitasuna eta erabileraren arteko aldeak bai haur eta gazteen artean, baina baita adinekoen artean ere, izan ere, azken talde horretan, 10etik erdiak euskaraz hitz egiten badu ere, bi lagunek egin baitute euskaraz.

## 7.5 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA

Euskararen kale-erabileraren bilakaera desberdina da adin-talde bakoitzean: haurren kasuan ez da ia aldaketarik gertatu; gazteen eta adinekoen artean behera egin du; eta, azkenik, helduen kasuan gorakada ikus daiteke; hain zuzen,% 34,7ko erabilera izatetik % 38ra igo da.

Dena den, azpimarratzekoa da gazteen kasuan 2017ko erabilera baxuagoa zela 2025ekoa baino, eta azken urteotan gora egin duela. Adinekoen artean, aldiz, erabileraren beherakada konstantea izan da, ez du etenik izan.

**16. Grafikoa eta Taula: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2014-2025**



16. TAULA: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2014-2025

%	2014	2017	2025
Haurrak (2-14 urte)	54,3	55,3	54,8
<i>Lagina</i>	3.974	4.512	2.036
Gazteak (15-24 urte)	34,2	25,1	29,6
<i>Lagina</i>	806	2.002	924
Helduak (25-64 urte)	34,7	32,5	38,0
<i>Lagina</i>	5.720	9.144	3.907
Adinekoak (65etik gora)	27,2	24,5	19,6
<i>Lagina</i>	2.002	2.996	2.335


Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

## 8 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA

Berdin egiten al du jendeak euskaraz adin-tarte guztietako solaskideekin? Alderik ba al da haur eta nagusien artean, nahastuta edo bananduta egonez gero? Ondorengo grafiko eta taulatan bi faktore horiek landu eta erakusten dira.

### 8.1 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADIN-TALDE BEREKOAK ELKARTZEAN

17. Grafikoa eta Taula: ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEKO KALE ERABILERA. ELGOIBAR, 2025



17. TAULA: ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEKO KALE ERABILERA. ELGOIBAR, 2025					
	Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Heldu gazteak (25-44 urte)	Heldu nagusiak (45-64 urte)	Adinekoak (65etik gora)
Euskaraz	45,6	28,1	42,4	20,2	15,5
Gaztelaniaz	53,1	70,9	53,0	77,3	83,8
Frantsesez	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1
Beste hizkuntzetan	1,3	1,0	4,7	2,4	0,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Lagina	1.199	815	1.475	1.024	1.737


Iturria: Soziolinguintika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

Aurreko grafiko eta taulan adin-talde berekoen arteko solasaldietan zer hizkuntza erabiltzen den erakusten da. Bertan ikus daitekeenez, haur eta heldu gazteen artean erabiltzen da gehien euskara adin-talde berekoen artean: % 45,6 haurren artean, % 42,4 heldu gazteen artean. Aldiz, gutxien adinekoen artean hitz egiten da, % 15,5. Tartean dira gazteen arteko erabilera (% 28,1) eta heldu nagusien artekoa (% 20,2).

Interesgarria da, nolanahi ere, erabilera orokorrarekin alderatzea. Alegia, elkarriketatik adin berekoak ari direnean, edo adinez talde nahasietan ari direnean zer gertatzen den alderatzea.

Ondorengo grafiko eta taulan ikus daitekeenez, Elgoibarren, erabilera orokorrarekin alderatuta, gazteek antzera egiten dute euren artean daudenean, eta adin desberdinetako taldeetan. Aldiz, gutxiago hitz egiten da haur, heldu gazte, heldu nagusi eta adinekoen artean, izan ere, gehiago egiten dute euskaraz adin-desberdinetako taldeetan daudenean. Beraz, harreman-mota horretan gailentzen da, neurri batean behintzat, euskara gehiago erabiltzearen arau soziala. Egoerak bat egiten du Euskal Herriko joerarekin, izan ere, datu orokorrak aztertuz ikus daiteke euskararen erabilera handiagoa dela adin-talde guztietarako adinkideen elkarriketatik baino (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

**18. Grafikoa eta Taula: EUSKARAREN KALE ERABILERA ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEAN ETA GUZTIRA. ELGOIBAR, 2025**




	Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Heldu gazteak (25-44 urte)	Heldu nagusiak (45-64 urte)	Adinekoak (>64 urte)
<b>Adin berekoekin</b>	45,6	28,1	42,4	20,2	15,5
<b>Lagina</b>	1.199	815	1.475	1.024	1.737
<b>Guztira</b>	54,8	29,5	46,4	25,0	19,6
<b>Lagina</b>	2.036	924	2.364	1.543	2.335

**Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025.**

## 8.2 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADIN-TALDE BEREKOAK ELKARTZEAN

Jarraian, kale-erabileraren bilakaera aztertzen da, adin-talde berekoak elkartzen direnean.

19. Grafikoa eta Taula: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEAN. ELGOIBAR, 2014-2025



19. TAULA: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEAN. ELGOIBAR, 2014-2025

%	2014	2017	2025
Haurrak (2-14 urte)	46,5	43,9	45,6
<i>Lagina</i>	1.972	1.604	1.199
Gazteak (15-24 urte)	32,2	22,3	28,1
<i>Lagina</i>	740	1.756	815
Helduak (25-64 urte)	25	24,4	32,9
<i>Lagina</i>	3.376	5.766	2.703
Adinekoak (65etik gora)	22,3	17,7	15,5
<i>Lagina</i>	1.140	1.936	1.737

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025


Euskararen erabileraren bilakaerari dagokionez, grafikoan ikus daiteke adin-taldeen arabera erabileran aldeak daudela 2014 eta 2025 urteen artean: adin-talde guztietan joera erabilerak behera egitea da, helduen kasuan izan ezik, non gora egin duen.

Urte guztietan haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak; 2014an % 46,5etik 2017an % 43,9ra jaitsi bazen ere, 2025ean % 45,6ra igo da berriro. Gazteen (15-24 urte) kasuan, beherakada gertatu zen 2014tik 2017ra (% 32,2tik % 22,3ra), baina 2025ean % 28,1era igo da. Helduen (25-64 urte) artean, erabilera egonkor mantendu da 2014tik 2017ra (% 25 inguruan), baina 2025ean igoera ikus daiteke eta erabilera % 32,9ra iritsi da. Adinekoen (65 urtetik gora) kasuan, beherakada etengabea ikusten da: 2014an % 22,3 zen, 2017an % 17,7ra jaitsi, eta 2025ean % 15,5era.

### 8.3 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HAURREN PRESENTZIA-REN ARABERA

Jarraian, haurren presentziak euskararen erabileran duen eragina erakusten da.

20. Grafikoa eta Taula: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2025



20 TAULA: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2025			
%	Haurren artean	Nagusien artean	Haurrak eta nagusiak nahastuta
Euskaraz	45,6	26,3	64,7
Gaztelaniaz	53,1	71,6	31,9
Frantsesez		2,0	
Beste hizkuntze- tan	1,3		3,4
GUZTIRA	100	100	100
<i>Lagina</i>	<i>1.199</i>	<i>6.241</i>	<i>1.762</i>
Iturria. Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025. Soziolinguistika Klusterra.			


Grafiko eta taulan ikus daitekeen moduan, euskara gehien haurrek eta nagusiek elkarrekin hitz egiten dutenetan erabiltzen dute. Haurrek eta nagusiek hitz egitean euskararen erabilera % 64,7 da. Haurrek elkarrekin hitz egiten dutenean euskararen erabilera % 45,6ra jaisten da. Azkenik, euskara gutxien nagusiek euren artean hitz egiten dutenetan erabiltzen da. Kasu horietan erabilera % 26,3 da.

Aipatu behar da, bestalde, **Elgoibarren** bildutako datu horiek bat egiten dutela erabat Euskal Herriko joera orokorrarekin. Izan ere, lurralde osoa kontuan hartuta, euskararen erabilera-daturik altuenak haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean jasotzen dira, eta baxuenak haurrik ez dagoen elkarrizketetan (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

## 8.4 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA

Ondorengo grafiko eta taulan, haurren presentziak euskararen erabileran izan duen eraginaren bilakaera erakusten da.

21. Grafikoa eta Taula: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. ELGOIBAR, 2014-2025



%	2014	2017	2025
Haurren artean	46,5	43,9	45,6
<i>Lagina</i>	986	802	1.199
Nagusien artean	25,6	22,7	26,3
<i>Lagina</i>	3.193	5.581	6.241
Haurrak eta nagusiak nahastuta	58,1	58,9	64,7
<i>Lagina</i>	2.072	2.944	1.762

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025


Bilakaerari erreparatuz, esan daiteke nagusien arteko eta haurren arteko euskararen erabilera nahiko egonkorra dela: nagusien artean 2014ean % 25,7 izan zen eta 2025ean % 26,3 (erabilerarik baxuena 2017an behatu zen, % 22,7); haurren kasuan, 2014ean % 46,5 zen eta 2025ean % 45,6 (baxuena kasu honetan ere 2017koa izan zen, % 43,9koa).

Bestalde, nagusi eta haurren arteko euskararen erabilerak azken zortzi urteotan gora egin du; hain zuzen, % 58,9tik %64,7ra.

## 8.5 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HAURRA ALA NAGUSIA HITZ EGITEN ARI DEN

Atal honetan, hurrez eta nagusiez osatutako elkarrizketak soilik hartuko dira kontuan. Ondorengo taulan hitz egiten ari dena haurra ala nagusia izateak duen eragina erakusten da.

22. Grafikoa eta Taula: EUSKARAREN KALE ERABILERA . HAURRA ALA NAGUSIA HIZLARI. ELGOIBAR, 2025



22. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HAURRA ALA NAGUSIA HITZ EGITEN ARI DEN. ELGOIBAR, 2025		
%	Haurra hizlari	Nagusia hizlari
Euskaraz	66,3	63,3
Gaztelaniaz	30,4	33,2
Beste hizkuntzetan	3,3	3,5
GUZTIRA	100	100
<i>Lagina</i>	<i>816</i>	<i>946</i>

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ELGOIBAR 2025

Aurreko grafiko eta taulan ikus daitekeenez, haur eta nagusien arteko solasaldietan, haurra hitz egiten ari denean erabilera % 66,3koa da, eta nagusia denean hitz egiten ari dena, aldiz, % 63,3koa. Beraz, grafiko eta taula horretan berresten da haurrek euskaraz hitz egiteko joera handiagoa dutela nagusiek baino.

## 9 ONDORIOAK

Elgoibarko 2025eko *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak* erakutsi du, ikerketagarria, herriko kaleetan 10 lagunetatik ia lau ari dela euskarazko elkarrizketetan (% 36,2), gaztelaniaz (% 61,6) eta gainerakoak beste hizkuntzetan (% 2,2).

- Elgoibarko euskararen erabilera egonkor mantendu da azken zortzi urteotan. Hala ere, aipatu beharrekoa da 2014tik behera egin duela.
- Giro sozialen araberako erabilerari dagokionean, euskara gehien paseo eta jolasguneetan entzun da, ondoren gazte eta txikiteo giroan, jarraian etxetik kanpoko familia giroan eta gutxien erosketa giroan. Hamaika urteko bilakae-rari erreparatuta erabilerak behera egin du paseo-jolaslekuetako eta etxetik kanpoko familia giroan; baina gazte eta txikiteo giroan eta erosketa giroan gora egin du.
- Emakumezkoek zertxobait gehiago egiten dute euskaraz gizonezkoek baino Elgoibarren. Joera hori neurketak egin diren edizio guztietan gertatu da, eta, oro har, Euskal Herriko lurralde guztietan errepikatzen den fenomeno da, adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik. Badirudi, emakumeek eta gizonek euskararekiko izan ditzaketen irudi zein balio desberdinek hizkuntza-hautuan eragiten dutela. Etorkizuneko aztergai interesgarria da honakoa, zalantzarik gabe.
- Elgoibarren haurrek erabiltzen dute euskara gehien. Adin-talde horren erabilerak eta heldu gazteena udalerriko batez bestekotik gora daude, eta neurri handi batean, euskararen erabileraren sendotzea eragiten dute. Bestalde, euskara gutxien adinekoen artean entzun daiteke.
- Adin berekoen arteko elkarrizketetan azaleratu da, bestalde, orain artean agerian ez zegoen informazio interesgarria. Izan ere, adin-talde guztietan egiten da euskaraz gehiago adin desberdinetako lagunez osatutako taldeetan, adin-kideekin osatutakoetan baino.
- Aurreko gertakaria lotzen da honako honekin: Euskal Herriko kaleetan pertsona nagusiak euskaraz gehiago aritzen dira haurrak hurbil daudenean, eurrak bakarrik daudenean baino. Joera hori ere orokorra da, eta Elgoibarren ere araua hala betetzen da. Badirudi pertsona nagusiek euren harreman horizontaletan gaztelaniarako joera sendoagoa dutela eta hurrekin daudenean errazago baztertzen dutela joera hori: nagusien arteko taldeetan entzuten da gutxi euskaraz, eta hurrekin daudenean, aldiz, nabarmen igotzen da euskararen erabilera.

## 10 DATU NAGUSIEN LABURPENA

### ELGOIBAR, 2025 Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa Datu nagusien laburpena

<b>Datu orokor- rrak</b>	Euskaraz	% 36,2
	Gaztelaniaz	% 61,6
	Beste hizkuntzatan	% 2,2
	Euskararen erabileraren bilakaera (2016-2021)	- 3,5
	Euskararen erabileraren bilakaera (2011-2021)	+0,3
<b>ibilbideak</b>	1. Paseo eta jolaslekuak	% 43,7
	2. Gazte giroa eta txikiteo giroa	% 38,9
	3. Erosketa giroa	% 27,2
	4. Etxetik kanpoko familia giroa	% 33,6
<b>Sexua</b>	Emakumezkoek	% 38,7
	Gizonezkoek	% 32,5
<b>Adina</b>	Haurrek	% 54,8
	Gazteek	% 29,6
	Helduek	% 38,0
	Heldu gazteek	% 46,5
	Heldu nagusiek	% 25,0
	Adinekoek	% 19,6
	Haurren artean	% 45,6
	Gazteen artean	% 28,1
	Helduen artean	% 32,9
	Heldu gazteen artean	% 42,4
	Heldu nagusien artean	% 20,2
Adinekoen artean	% 15,5	
<b>Haurren presentzia</b>	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean	% 45,6
	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe) daudenean	% 26,3
	Haurrek eta nagusiek osatutako taldeetan	% 64,7
	Haurrek hitz egiten dutenean	% 63,3
	Nagusiek hitz egiten dutenean	% 66,3

## 11 BIBLIOGRAFIA

- Aierdi, Xabier, Belen Uranga, eta Maialen Iñarra. 2021. «Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza -aniztasunaren mapa. Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren araberrako hurbilketa». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 119: 11–38.
- Aizpurua Espin, Jon. 2018. «Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 106: 29–45.
- Altuna, Olatz, eta Asier Basurto. 2013. *Hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Altuna Ramírez, Jaime, eta Jone M. Hernández García. 2018. «% 2,7a Euskara, generoaz mintzo?» *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 106: 115–44.
- Altuna Zumeta, Olatz, eta Maialen Iñarra Arregi. 2022. *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021. Txosten teknikoa*. Soziolinguistika Klusterra.
- Altuna Zumeta, Olatz, Maialen Iñarra Arregi, eta Asier Basurto Arruti. 2022. *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Alvarez Enparantza, Txillardeggi, J. L. 2001. *Hacia una Sociolingüística Matemática*. SEI.
- Amorrortu, Estibaliz, Jone Goirigolzarri, eta Ane Ortega. 2021. «Ekintza-ikerketaren partehartzailea euskararen hiztun aktibo bihurtzeko babesgune eta zubi-espazio». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 120: 11–26.
- Calvet, Louis-Jean. 2017. *Les langues: quel avenir? Les effets linguistiques de la mondialisation*. CNRS.
- Crystal, David. 2003. *English as a Global Language*. 2nd ed. Cambridge: Cambridge University Press. <https://www.cambridge.org/core/books/english-as-a-global-language/690D300092A3B5E4733677FCC9A42E98>.
- Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. 2025. *VII. Mapa Soziolinguistikoa 2021*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde publikoa. 2024. «VII. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoko fitxa teknikoa». [https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI\\_INK\\_SOZLG-EH\\_eus.pdf?1499236557](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557).
- Gaindegia. 2021. «20 Adierazle galeria nagusi. Euskal Herria». [https://gaindegia.eus/sites/default/files/AGN-euskal-herria-2021\\_8.pdf](https://gaindegia.eus/sites/default/files/AGN-euskal-herria-2021_8.pdf).

- Giles, H, R.Y. Bourhis, Taylor, D.M., eta Relations». 1977. «"Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations"». *Language, Ethnicity and Intergroup Relations* (307-348).
- Iriberry, Nagore, eta José Ramón Uriarte. 2012. «Gutxiengoen hizkuntza eta elebitasunaren orekaren egonkortasuna». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 84: 185-206.
- Isasi, X., eta A. Iriarte. 1998. «"Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa", BAT Soziolinguistika aldizkaria 28, 51-80 orr». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 28: 51-80.
- Larrañaga, Iñaki. 1986. «Euskararen erabilpen erreala Gipuzkoan: leku publikoetan, udal erakundeetan, gizarteko zerbitzuetan». In *Hizkuntza minorizatuaren soziologia*, -(e)k argitaratua J. Ruiz Olabuenaga eta J.A. Ozamiz. Donostia: Ttartaloko argitaletxea.
- Lo Bianco, Joseph. 2014. «Domesticating the Foreign: Globalization's Effects on the Place/s of Languages.» *The Modern Language Journal* 98 (1): 3121-3325.
- Moseley, Christopher. 2010. *Atlas of the World's Languages in Danger*. 3. arg. Paris: Unesco Publishing.
- Ramallo, Fernando. 2020. «Neofalantismo y el sujeto neohablante». In *Claves para entender el multilingüismo contemporáneo.*, -(e)k argitaratua Luisa Martín Rojo eta Joan Pujolar, UOC y Universidad de Zaragoza, 229-65. Zaragoza.
- Ruiz Olabuenaga, José Ignacio, eta Cristina Blanco. 1994. *La inmigración vasca. Análisis trigeracional de 150 años de inmigración*. Bilbo: Universidad de Deusto.
- Sorolla Vidal, Natxo, Olatz Altuna Zumeta, eta Imanol Larrea Mendizabal. 2019. *Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak*. Soziolinguistika Klusterra.
- Uranga, Belen, eta Xabier Aierdi. 2021. «Gipuzkoako hizkuntza aniztasuna. Jatorri atzeritarreko biztanleen hizkuntza-bizipenak, jarrerak eta asmoak». Soziolinguistika Klusterra, Gipuzkoako Foru Aldundia (Argitaratu gabe).
- Vila i Moreno, F. Xavier. 2021. «Hizkuntza gutxiak: ezagutzaren eta erabileraren sustatzearen arteko lotura». *Administrazioa euskaraz* 111: 26-27.
- Yurramendi, Y., eta O. Altuna. 2009. «Zuzeneko behaketaz hizkuntza erabilera neurtzeko metodologiaren eredu matematikoa». Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/zuzeneko-behaketaz-hizkuntza-erabilera-neurtzeko-metodologiaren-eredu-matematikoa/>.
- Yurramendi, Y., O. Altuna, X. Isasi, eta A. Basurto. 2013. «Ahozko hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko metodologiaren garapena». Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/ahozko-hizkuntza-erabilera-behaketa-bidez-neurtzeko-metodologiaren-garapena/>.

Zarraga Azumendi, Arkaitz. 2010. «Soziolinguistikari sarrera». In *Soziolinguistika Eskuliburua*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra; Eusko Jaurlarita, Kultura Saila.